

Prentsa oharra

Nota de prensa



Perueneko baranda konpontzeko lanak amaitu dira

Jarduerak 20.000 euro inguruko inbertsioa izan du, eta horri esker barandaren egitura indartu da.

Donostiako Udalak Perueneko baranda konpontzeko lanak amaitu ditu, kamioi baten istripuaren ondorioz kalte larriak izan baitzituen. Joan den astean egin ziren konponketa-lanak, eta horri esker, tarte horretako segurtasuna erabat berreskuratu eta azpiegitura indartu ahal izan da, haren erresistentzia hobetzeko.

Konponketa-lan horien bidez, talkak eragindako 60 metroko baranda berreraiki da; era berean, Txingurri pasealekuaren azpiko pasabideraino doan zatia berrikusi eta konpondu da. Azken zati horretan, hainbat soldadura-puntu erreparatu eta deformatuta geratu ziren hainbat hodi zuzendu dira.

Gainera, hanka bikoitzeko lau bereizketa berri jarri dira, egitura osoari zurruntasun handiagoa emateko eta haren egonkortasuna areagotzeko. Jarduketaren kostua 20.000 euro ingurukoa izan da, BEZa barne.

Aseguru-etxeekin administrazio- eta kudeaketa-izapide guztiak bete ondoren, konponketa egin ahal izan da, eta eremua ahalik eta lasterren ireki ahal izan da.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi Iñigo Garcíaren ustez, “jarduketa hori beharrezkoa zen eremu horretan segurtasun-baldintzak lehenbailehen berrezartzeko, istripuaren ondorioz kaltetuta geratu baitzen”. Era berean, honako hau adierazi du: “erasandako eremua berreraikitzeaz gain, jarduketa aprobetxatu dugu egitura indartzeko, horrela, haren portaera eta iraupena hobetzeko”.

Garcíak balioa eman nahi izan dio udal-zerbitzuek konponketa ahalik eta azkarren egiteko egindako lanari. “Gure helburua da horrelako gorabeheren aurrean azkar erantzutea, herritarrei ahalik eta erasan gutxien sortzeko eta espazio publikoak egoera onean mantentzen direla bermatzeko” adierazi du.

Joan den maiatzaren 25ean, Herrera auzoaren ondoko saihesbidearen irteeran izandako istripuaren ondoren erabaki zen esku-hartzea egitea. Izan ere, puntu horretan, Dachser garraio-enpresako kamioi batek kontrola galdu zuen, galtzadatik irten zen eta aparkatuta zeuden zenbait ibilgailuren kontra jo zuen. Gertakari horretan ez zen biktimarik edo zauritu larririk egon.

Abiadura-muga nabarmen jaisten den tarte batean gertatu zen ezbeharra,

Prentsa oharra

Nota de prensa



saihesbidean ezarritako 80 km/h-ko abiadura 30 km/h-ra murrizten baita irteerako hiri-biderako.